Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua

62E/2023 EBAZPENA, abuztuaren 22koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez lehen ordainketa ebazten baita dirulaguntzen deialdian, euskara erabiltzeko prentsa idatzian, irratietan eta online hedabideetan, 2023. urtean.

ERREFERENTZIA: **Espediente kodea: 0011-1406-2023-000000**

UNITATE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara Sustatzeko Atala
Tel.: 848 433493
Helbidea: Paulino Caballero kalea 13, 31002 Iruña
Helbide elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Dirulaguntzen deialdia, euskara erabiltzeko prentsa idatzian, irratietan eta online hedabideetan 2023. urtean.

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena aurkeztu du, eta proposatu du 2023ko lehen ordainketa egitea dirulaguntzen deialdian (euskara erabiltzeko prentsa idatzian, irratietan eta online hedabideetan), ebazpen honen bidez, behin justifikazio-dokumentazioa dagokion epean jaso eta xehetasunez berrikusita; hori guztia otsailaren 20ko 12E/2023 Foru Aginduaren bidez onartutako deialdian xedatutakoaren arabera.

Kudeaketa zerbitzuak egiaztatu du dirulaguntza emateko helburuak eta dirulaguntza jasotzeko baldintzak bete direla, eta aurkeztutako dokumentuak baliozkoak direla.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuak eman dizkidan eskudantziak erabiliz,

**EBATZI DUT:**

1. Dirulaguntzen deialdiko lehen ordainketa egitea honako taula honetan ageri diren onuradunei:

| **Espediente / Expediente** | **IZK / CIF** | **Enpresa / Empresa** | **Aurrekontu partida / Partida presupuestaria** | **1.ordainketa / 1ª pago** |
|---|---|---|---|---|
| 0011-1406-2023-000007 | B31595721 | ARALAR IRRATIA SL | G/B30002/B3200/4709/334100 | 7.104,08 |
| 0011-1406-2023-000009 | G31736077 | ASOCIACIÓN CULTURAL MAILOPE | G/B30002/B3200/4709/334100 | 7.602,88 |
| 0011-1406-2023-000016 | A31455082 | ZEROA MULTIMEDIA, S.A. | G/B30002/B3200/4709/334100 | 0 |
| 0011-1406-2023-000017 | G31595473 | FUNDACION TTIPI-TTAPA | G/B30002/B3200/4709/334100 | 74.896,585 |
| 0011-1406-2023-000018 | G31595473 | FUNDACION TTIPI-TTAPA | G/B30002/B3200/4709/334100 | 9.388,825 |
| 0011-1406-2023-000030 | G31267008 | ASOCIACION CULTURAL XORROXIN ELKARTEA | G/B30002/B3200/4709/334100 | 47.376,57 |
| 0011-1406-2023-000031 | E31696883 | GARCIA BUENO-LABIANO MOSO | G/B30002/B3200/4709/334100 | 1.969,6 |
| | | | | **148.338,55** |

2. ZEROA MULTIMEDIA, S.A.-ri ez ordaintzea, ez baitu behar adinako justifikaziorik aurkeztu.

3. Ebazpen hau onuradun bakoitzari jakinaraziko zaio.

4. Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete jurisdikzio eskudunaren aurrean, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita. Hala ere, aurretiazko errekerimendua egin ahal izango diote Nafarroako Gobernuari, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epeetan.

Iruñean, 2023ko abuztuaren 22an

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA
Mikel Arregi Pérez

CSV: **110C068CCF67B384**
Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:
https://administracionelectronica.navarra.es/validarCSV/default.aspx
Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)
Fecha de emisión / Noiz emana: 2023-08-22 14:28:27